

Bibliotekonomia

HIZTEGIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: I.a, 2016ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en English

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Jaione Aramendi (IVAP)

Xabier Kerexeta (KALEGOI)

Unai Cuevas (Eusko Jaurlaritza)

Begoña Arrate (UZEI)

Koordinatzailea: **Jone Agirregoikoa**
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVAPeke zuzendarioordea, batzorde-ataleko lehendakarioordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVAPeke ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Pruden Gartzia. Euskaltzaindia. Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia
Emiliano Bartolome. Eusko Jaurlaritza. Liburutegi Nagusia

EREMU-ZUHAITZA



- 1 Kontzeptu orokorrak. Liburutegi-motak**
- 2 Dokumentu-motak eta dokumentu-cuskarri motak**
- 3 Bildumaren kudeaketa. Prozesu teknikoa**
- 4 Liburutegi-zerbitzuak. Erabilera eta hedapena**

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

1. KONTZEPTU OROKORRAK. LIBURUTEGI-MOTAK.	14
2. DOKUMENTU-MOTAK ETA DOKUMENTU-EUSKARRI MOTAK	17
3. BILDUMAREN KUDEAKETA. PROZESU TEKNIKOA	24
4. LIBURUTEGI-ZERBITZUAK. ERABILERA ETA HEDAPENA.	46
Euskarazko aurkibidea	51
Gaztelaniazko aurkibidea	59
Frantsesezko aurkibidea	67
Ingelesezko aurkibidea	75
Erreferentzia bibliografikoak.	83

BOKABULARIOA SAILKA

I. KONTZEPTU OROKORRAK. LIBURUTEGI-MOTAK

1

apal (4)

es anaquel; balda; estante

fr étagère; rayon

en shelf; bookshelf

2

apalategi mugigarri (4)

Gurpilen gainean eta errailetan zehar mugitzen den apala, tokia aurrezteko erabiltzen dena.

es compactus; estantería movable

fr rayonnage compact; rayonnage dense; rayonnage mobile

en compact shelving

biblioteka

Ik. liburutegi

biblioteka digital

Ik. liburutegi digital

biblioteka espezializatu

Ik. liburutegi espezializatu

biblioteka hibrido

Ik. liburutegi hibrido

biblioteka nazional

Ik. liburutegi nazional

biblioteka publiko

Ik. liburutegi publiko

biblioteka-sistema

Ik. liburutegi-sistema

bibliotekari

Ik. liburuzain

3

bibliotekonomia (4)

Liburutegien antolamendua eta kudeaketa aztertzen dituen diziplina. Arreta berezia ematen die katalogaziorako eta dokumentu-funtsak antolatzeke metodoei, liburutegien erabilera errazteko.

es biblioteconomía

fr bibliothéconomie

en library science; librarianship

4

dokumentu-ondare (4)

es patrimonio documental

fr patrimoine documentaire

en documentary heritage

eskola-biblioteka

Ik. eskola-liburutegi

5

eskola-liburutegi (4)

Sin. eskola-biblioteka (4)

es biblioteca escolar; biblioteca de centro de enseñanza no universitario

fr bibliothèque scolaire

en school library

6

eskuratze (4)

es adquisición

fr acquisition

en acquisition

gobernu-biblioteka

Ik. gobernu-liburutegi

7

gobernu-liburutegi (4)

Sin. gobernu-biblioteka (4)

Gobernu jakin bati zerbitzua ematen dion liburutegi berezia.

es biblioteca gubernamental**fr** bibliothèque gouvernementale**en** government library**haur-biblioteka**

Ik. haur-liburutegi

8

haur-liburutegi (4)

Sin. haur-biblioteka (4)

es biblioteca para niños; biblioteca infantil y juvenil; biblioteca infantil**fr** bibliothèque enfantine; bibliothèque pour enfants**en** children's library

9

huts (4)**es** errata**fr** errata; coquille**en** misprint

10

IFLA (4)

Sin. Liburutegien Elkarte eta

Erakundeen Nazioarteko Federazioa (4)

es IFLA; Federación Internacional de Asociaciones e Instituciones Bibliotecarias**fr** IFLA; Fédération Internationale des Associations et Institutions de Bibliothèques**en** IFLA; International Federation of Library Associations and Institutions

11

informazio-alfabetatze (4)**es** alfabetización informacional; ALFIN**fr** littératie**en** information literacy

12

irakurketa publiko (4)**es** lectura pública**fr** lecture publique**en** public reading**itsuentzako biblioteka**

Ik. itsuentzako liburutegi

13

itsuentzako liburutegi (4)

Sin. itsuentzako biblioteka (4)

es biblioteca para ciegos**fr** bibliothèque pour aveugles**en** library for the blind

14

liburutegi (4)

Sin. biblioteka (4)

Dokumentuen bilduma antolatuak sortzeaz, mantentzeaz eta kudeatzeaz eta horiek erabiltzeko baimena duten pertsoneri zerbitzu egokia emateaz arduratzen den erakundea edo erakunde baten atala; eta, hedaduraz, haren egoitza den eraikina.

es biblioteca**fr** bibliothèque**en** library

15

liburutegi digital (4)

Sin. biblioteka digital (4)

Gailu elektroniko bidez gordetzen, berreskuratzen eta irakurtzen diren testu, irudi eta abarren bilduma kodetua.

es biblioteca digital**fr** bibliothèque numérique**en** digital library; DL

16

liburutegi espezializatu (4)

Sin. biblioteka espezializatu (4)

Gai jakin bati edo elkarren artean erlazionatutako gai batzuei buruzko dokumentuak biltzen dituen liburutegi-mota.

es biblioteca especial; biblioteca especializada; centro de documentación

fr bibliothèque spécialisée

en special library; specialised library

17

liburutegi hibrido (4)

Sin. biblioteka hibrido (4)

Espazio fisiko batean ohiko paperezko euskarriak eta formatu elektronikokoak biltzen dituen liburutegia.

es biblioteca híbrida

fr bibliothèque hybride

en hybrid library

18

liburutegi nazional (4)

Sin. biblioteka nazional (4)

es biblioteca nacional

fr bibliothèque nationale

en national library

19

liburutegi publiko (4)

Sin. biblioteka publiko (4)

es biblioteca pública

fr bibliothèque publique

en public library

20

liburutegi-sistema (4)

Sin. biblioteka-sistema (4)

es sistema bibliotecario

fr système de bibliothèque

en library system

Liburutegien Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa

Ik. IFLA

21

liburuzain (4)

Sin. bibliotekari (4)

es bibliotecario

fr bibliothécaire

en librarian

22

ondare bibliografiko (4)

es patrimonio bibliográfico

fr patrimoine bibliographique

en bibliographic heritage

23

unibertsitate-liburutegi (4)

es biblioteca universitaria

fr bibliothèque universitaire

en university library

2. DOKUMENTU-MOTAK ETA DOKUMENTU-EUSKARRI MOTAK

afixa

Ik. kartel

agiri

Ik. dokumentu

24

album (4)

Bilduma aizuna, liburu-tankerako objektu batean material grafiko multzo bat (marrazkiak, estanpak, argazkiak, etab.) biltzen duena.

es álbum

fr album

en album

25

aldizkari (4)

es revista

fr revue; magazine; périodique

en magazine

anon.

Ik. anonimo

26

anonimo (4)

Sin. anon. (4)

Egile ezezaguna duen lana.

es anónimo; anón.

fr anonyme

en anonymous

apok.

Ik. apokrifo

27

apokrifo (4)

Sin. apok. (4)

Egiletzat hartzen den autoreari ez dagokion lana.

es apócrifo; apócr.

fr apocryphe

en apocryphal

argitalpen monografiko

Ik. monografia

28

argitaragabe (4)

es inédito

fr inédit

en unpublished

29

argitaratzen ari den lan (4)

es obra en curso de publicación;

obra en curso

fr ouvrages en cours de publication

en continuations

art.

Ik. artikulua

30

artikulu (4)

Sin. art. (4)

es artículo; art.

fr article

en article

31

aurkibide (4)

es índice

fr index

en index

autogr.

Ik. autografo

32

autografo (4)

Sin. autogr. (4)

Egileak berak idatzitako jatorrizko eskuizkribua.

es autógrafo; autogr.

fr autographe

en autograph

bibliog.

Ik. bibliografia

33

bibliografia (4)

Sin. bibliog. (4)

1. Liburuak ezagutzeaz eta deskribatzeaz arduratzen den diziplina.
2. Deskribapen bibliografikoak biltzen dituen argitalpena. 3. Gai edo egile jakin baten inguruko argitalpenen multzoa.

es bibliografía; bibl.; bibliogr.

fr bibliographie

en bibliography; reference list

34

bideo (4)

es vídeo

fr vidéo

en video

CD

Ik. disko trinko

35

CD-ROM (4)

es CD-ROM

fr CD-ROM

en CD-ROM; Compact Disc-Read Only Memory

36

diapositiba (4)

es diapositiva

fr diapositive

en slide

37

dibulgazio-liburu (4)

es libro de divulgación

fr livre de vulgarisation

en popularizing book

38

direktorio (4)

Pertsonak, enpresak, erakundeak, tokiak, eta abar identifikatzea edo kokatzea ahalbidetzen duen zerrenda; alfabetikoki ordenatuta edo beste irizpide batzuen arabera sailkatuta egoten da, eta harremanetarako informazioa edo bestelako xehetasunak modu laburtuan biltzen ditu.

es directorio

fr répertoire

en directory

39

disko trinko (4)

Sin. CD (4)

es disco compacto; CD

fr disque compact; CD

en compact disc; CD

40

dokumentu (4)

Sin. agiri (4)

Informazioa biltzen duen euskarri fisiko edo elektronikoa. Hainbat motatakoa izan daiteke, hala nola eskuizkribua, argitalpen inprimatua, mikroforma, soinu-grabazioa, baliabide elektronikoa, etab.

es documento

fr document

en document; record

41

dokumentu digital (4)

es documento digital

fr document digital

en digital document

42

dosier (4)

Gai bati buruzko argibideen eta dokumentuen multzoa.

es dossier

fr dossier

en record; dossier

43

egokitzapen (4)

Sin. moldaketa (3)

Lan baten testua aldatzea, irakurle-mota jakin batzuei egokitzeko edota generoz aldatzeko.

es adaptación

fr adaptation

en adaptation

44

egunkari (4)

es periódico; diario

fr journal; quotidien

en newspaper

eransk.

Ik. eranskin

45

eranskin (4)

Sin. eransk. (4)

Gaiari eta argitalpenari dagokienez beste argitalpen baten osagarria eta mendekoa den dokumentua.

es anexo

fr annexe

en annex

46

erreferentziako lan (4)

Gai bati buruzko informazio zehatza eta informazio-iturrietara erraz iristeko modua ematen duen dokumentua.

es obra de referencia; obra de consulta

fr ouvrage de référence

en reference book; reference work

eskbu.

Ik. eskuizkribu

47

eskuizkribu (4)

Sin. eskbu. (4)

es manuscrito; ms.

fr manuscrit

en manuscript

48

eskuliburu (4)

es manual; tratado

fr manuel

en handbook

fasz.

Ik. faszikulu

49

faszikulu (4)

Sin. fasz. (4)

Zatika argitaratutako lanen atal zenbakidunetako bakoitza edota argitalpen seriatuen atal zenbakidunetako bakoitza.

es fascículo; fasc.

fr fascicule

en fascicle; issue

50

film (4)

es película

fr film

en film

grab.

Ik. grabatu

51

grabatu (4)

Sin. grab. (4)

es grabado; grab.

fr gravure

en engraving

52

hiru dimentsioko objektu (4)

es objeto tridimensional

fr objet tridimensionnel

en three-dimensional object

53

huts-zerrenda (4)

Liburu batean dauden hutsen zerrenda; liburuaren amaieran sartzen da liburu banatu aurretik, eta zer zuzenketa egin behar diren adierazten du.

- es fe de erratas
- fr errata
- en errata; corrigenda

54

ikus-entzunezko material (4)

es material audiovisual
fr matériel audio-visuel
en audiovisual material; audio-visual material; AV material

55

ilustrazio (4)

Testu batean, hura azaltzeko nahiz osatzeko ageri den irudi grafiko nahiz figuratiboa.

- es ilustración
- fr illustration
- en illustration

56

inkunable (4)

1500. urtea baino lehen inprimatutako lana.

- es incunable
- fr incunable
- en incunabulum

jar.

Ik. jarraipen

57

jarraipen (4)

Sin. jar. (4)
Aurretik argitaratutako beste lan baten osagarria den lana.

- es continuación; cont.
- fr continuation; suite
- en continuation

58

kartel (4)

Sin. afixa (4)
es cartel
fr panneau; affiche
en poster

59

kasete (4)

es casete
fr cassette
en cassette

60

koaderno (4)

Pleguen multzoa, bata bestearen barruan sartuta eta josita.

- es cuaderno
- fr cahier
- en quire; section; signature

61

kodex (4)

Eskuz idatzitako liburu zaharra, historiaren, literaturaren edo zientziaren ikuspegitik garrantzia duena.

- es códice
- fr codex
- en codex

62

komiki (4)

es cómic
fr bande dessinée
en comic strip

63

laburpen (4)

Lan baten edukiaren azalpen laburtua.

- es compendio
- fr compendium; recueil
- en compendium

lam.

Ik. lamina

64

lamina (4)

Sin. lam. (4)

es lámina; lam.; hoja de lámina**fr** planche**en** plate

65

libreto (4)

Musika-lan dramatiko baten atal literarioa.

es libreto**fr** livret**en** libretto

66

liburu (4)

Inprimatutako edo eskuz idatzitako orri-multzoa, edozein gairi buruzkoa eta alde batetik itsatsia.

es libro**fr** livre**en** book

67

liburuki (4)

Azal bakarrean bildutako lana, lan zatia edo lan-multzoa.

es volumen**fr** volume**en** volume

68

liburuxka (4)

Lau orrialde baino gehiago eta berrogeita hamar baino gutxiago dituen inprimakia, betiere argitalpen seriatua ez dena.

es folleto**fr** brochure; opuscule; livret**en** pamphlet; booklet

69

mapa (4)**es** mapa**fr** carte**en** map**mar.**

Ik. marrazki

70

marrazki (4)

Sin. mar. (4)

es dibujo; dib.**fr** dessin**en** drawing

71

material ez-liburuzko (4)

Liburua edo inprimatutako dokumentua ez den materiala: mapak, grafikoak, argazkiak, diapositibak, bideo-grabazioak, soinu-grabazioak, eta abar.

es material no librario; material no-libro**fr** non-livre; ressource non-livre**en** non-book material; nonbook

72

material grafiko (4)**es** material gráfico**fr** matériel graphique; documents graphiques**en** graphic materials; graphic material

73

material inprimatu (4)**es** material impreso**fr** matériel imprimé**en** print material

74

material kartografiko (4)**es** material cartográfico**fr** document cartographique**en** cartographic material

75

mikrofilm (4)

Linealki jarritako mikroirudien segida bat duen film-zerrenda. Irudiak handitzen dituen ekipamendu berezi batean irakurtzen da.

es microfilm; microfilme

fr microfilm

en microfilm

76

mikrofitxa (4)

Film-orri zapal batean horizontalean eta bertikalean jarritako tamaina bereko mikroirudien segida. Mikrofitxak irudiak handitzen dituen ekipamendu berezi batean irakurtzen dira.

es microficha

fr microfiche

en microfiche

77

mikroforma (4)

Mikroirudiak dituen edozein euskarri; gardena edo opakua izan daiteke.

es microforma

fr microforme

en microform

moldaketa

Ik. egokitzapen

78

monografia (4)

Sin. argitalpen monografiko (4)
Seriata ez den argitalpena, alegia, liburuki bakarrean edota liburuki-kopuru mugatu batean testu oso bat edota ilustrazioak dituena.

es monografía; publicación
monográfica

fr monographie

en monograph; monography;
monographic publication

79

multimedia (4)

es multimedia

fr multimédia

en multimedia

80

musika inprimatu (4)

Irakurtzeko argitaratzen den musika; metodoak, estudioak, ariketak eta musika-eskuizkribuen edizio faksimileak izaten dira, besteak beste.

es música impresa

fr musique imprimée

en printed music

81

ordenagailuko fitxategi (4)

es fichero de ordenador

fr fichier informatique

en computer file

osagb.

Ik. osatugabe

82

osatugabe (izond.) (4)

Sin. osagb. (4)

Zenbait liburukik osatutako lan baten ale bati dagokionez, liburukiren bat faltan edo argitalpen desberdin bateko liburuki batek ordeztua duena.

es descabaldo; incompleto;
incomp.

fr dépareillé; incomplet

en odd

83

paper-sorta (4)

Gai berari buruzkoak izateagatik elkartuak (gehienetan elkarri lotuak) dauden paperak.

es legajo

fr liasse; dossier

en bundle

84

partitura (4)**es** partitura**fr** partition**en** sheet of music; musical score**perg.**

Ik. pergamino

85

pergamino (4)

Sin. perg. (4)

1. Aharien edota beste animalia batzuen larrua, gainean idazteko prestatua. 2. Pergaminoz egindako liburu-azala.

es pergamino; perg.**fr** parchemin**en** parchment

86

plano (4)**es** plano**fr** plan**en** plan

87

plegu (4)

Sin. plg. (4)

Lau angeluko paper-orria, erditik tolestua.

es pliego; pli.**fr** feuillet; pli**en** leaflet**plg.**

Ik. plegu

88

soinu-grabazio (4)**es** grabación sonora; registro sonoro**fr** enregistrement sonore; document sonore**en** sound recording

89

txosten (4)**es** informe**fr** rapport**en** report

90

urtekari (4)

Informazio eguneratua biltzen duen urteroko argitalpen-mota; gai, diziplina, erakunde zein herrialde zehatz baten ingurukoa izaten da.

es anuario**fr** annuaire**en** yearbook

3. BILDUMAREN KUDEAKETA. PROZESU TEKNIKOA

a.

Ik. ale

91

agortu (4)

es agotado

fr épuisé

en out of print

aitzinsolas

Ik. hitzaurre

92

aldizkako argitalpen (4)

Aldizkakotasun finkoa duen argitalpen seriatua. Aldizkakotasunak gehienez ere urtebetekoa izan behar du.

es publicación periódica

fr publication périodique

en periodical

93

ale (4)

Sin. a. (4)

Edizio bateko unitate oso bakoitza.

es ejemplar; ejemp.

fr exemplaire

en copy; exemplar

arg.

Ik. argitaletxe

argit.

Ik. edizio

argitaldari

Ik. argitaletxe

94

argitaletxe (4)

Sin. arg. (4); argitaldari (4)

Lan propioak edo besterenak argitaratzen dituen eta lan horiek zabaltzearen erantzule den pertsona fisiko edo juridikoa.

es editor; ed.; editorial; nombre del editor

fr éditeur; nom d'éditeur

en publisher

95

argitalpen elektronikoa (4)

Testuak eta irudiak formatu digitaletan dituen argitalpena.

es publicación electrónica

fr publication assistée par ordinateur; PAO

en electronic publication; electronic publishing

96

argitalpen seriatu (4)

es publicación seriada

fr publication en série

en serial

Argitalpen Seriatuen

Nazioarteko Zenbaki

Normalizatua

Ik. ISSN

97

argitalpeneko katalogazio (4)

Sin. CIP (4)

es catalogación en la fuente; CIP

fr catalogage à la source; CIP

en cataloguing in publication; cataloging in publication; CIP

argitalpenen truke

Ik. truke

argitaraldi

Ik. edizio

at.

Ik. atari

98**atari (4)**

Sin. at. (4)

Liburuetan, hasieran egoten den orriaren aurkia, izenburu osoa eta diseinu berezia izaten dituen.

es portada**fr** page de titre**en** title page**99****atari kontrako orrialde (4)**

Sin. atari-aurrearen ifrentzu (4)

Atari-aurrearen atzeko orria. Zuriz joan daiteke edo lanaren izenburu orokorra, eskubideen zerrenda, edizioaren zenbakia, inprimategi zigilua, eta abar jaso ditzake.

es contraportada**fr** page de garde en regard de la page de titre**en** facing title page**100****atari-aurre (4)**

Sin. ataur. (4); sasiatari (4)

Zenbaitetan, atariaren aurrean ezartzen den orria. Zuriz joan daitekeen arren, normalean liburuaren izenburua inprimatzen da bertan, laburtuta edo karaktere txikiagotan, atariarekin alderatuz gero.

es anteportada; antep.; portadilla**fr** page de faux-titre**en** half title page**atari-aurrearen ifrentzu**

Ik. atari kontrako orrialde

ataur.

Ik. atari-aurre

atzeko azal

Ik. kontrazal

101**aukeraketa (4)**

Sin. hautaketa (4)

es selección**fr** sélection**en** selection**aur.**

Ik. aurki

102**aurki (4)**

Sin. aur. (4)

Liburu, liburuxka edo koaderno batean, zabalik dagoela irakurlearen eskuinaldean geratzen den orria. Orrialdeak zenbakituta daudenean, orrialde bakoitiak. Beste orrialdeari ifrentzu esaten zaio.

es anverso; recto; r.**fr** recto**en** recto**103****aurreko azal (4)**

Liburu baten azalaren aurreko alde.

es cubierta anterior**fr** plat recto; plat de dessus; plat supérieur**en** front cover**104****aurretikoak (4)**

1. Deskribapen bibliografikoari dagokionez, argitalpen baten atariak (edo atariaren ordezkoak edo, bat baino gehiago badaude, atariak), atariaren ifrentzuak eta aurreko orrialdeek osatzen duten orrialde-multzoa. 2. Lan batean, testu nagusiaren aurretik agertzen diren datuak eta testuak.

es preliminares**fr** pages liminaires; préliminaires**en** preliminaries; prelims

105

autoritate-kontrol (4)

Datu-base bibliografiko batean informazio guztia forma-irizpide berei jarraikiz emateko prozedurak (esate baterako, aldaera desberdinak dituzten izenak, izenburuak, eta abar beti berdin ematea helburu dutenak).

es control de autoridades**fr** contrôle d'autorité**en** authority control**az.**

Ik. azal

106

azal (4)

Egunkari edo aldizkari baten lehen orrialdea.

es portada**fr** page de couverture; première page**en** front page

107

azal (4)

Sin. az. (4)

Liburu baten pleguak biltzen eta babesten dituen materiala.

es cubierta; cub.**fr** couverture**en** cover**azal-hegal**

Ik. hegal

108

azalezatze (4)

Sin. aztze. (4)

Liburuki bat osatzen duten pleguak lotzea eta babestea, errazago erabil eta hobeto kontserba daitezten.

es encuadernación; enc.**fr** reliure**en** binding; bookbinding**azken ohar**

Ik. kolofoi

109

azpiizenburu (4)**es** subtítulo**fr** sous-titre**en** subtitle

110

azpisarrera (4)

Gaien katalogo alfabetikoan, sarrera baten ondoren sarrera konposatu bat eratuz ageri diren hitza edo hitzak.

es subencabezamiento**fr** sous-vedette**en** subheading**aztze.**

Ik. azaleztatze

111

babes-orri (4)

Azaleztatzaileek liburuen hasieran eta amaieran azalaren barneko aldeari itsatsita jartzen dituzten bi orrietako bakoitza.

es guarda**fr** page de garde; onglet; feuille de garde; garde**en** guard; endleaf; endpaper

112

babeste (4)

Objektuak jatorrizko baldintzei ahalik eta gehien gerturatzen zaien egoeran mantentzea.

es preservación**fr** préservation**en** preservation

113

Baliabideak Deskribatze eta Eskuratze (4)

Sin. RDA (4)

es Recursos: Descripción y Acceso; RDA**fr** Ressources: Description et Accès; RDA**en** Resource Description and Access; RDA

114

banatzaile (4)

- es** distribuidor
fr distributeur
en distributor

115

barra-kode (4)

Ordenagailu bidez eta irakurgailu optiko baten laguntzaz irakur daitekeen etiketa inprimatua, datuak altuera bera eta hainbat lodiera dituzten marren eta hutsune tartekatuen bidez kodetuak dituena. Liburutegietan dokumentu-funtseko materiala eta erabiltzaileen txartelak identifikatzeko erabiltzen da.

- es** código de barras
fr code à barres; code-barre
en barcode; bar code; softstrip

116

berrargitalpen (4)

- es** reedición
fr réédition
en reissue

117

berrikuste (4)

- es** revisión
fr révision
en revision

118

berrinprimatze (4)

- es** reimpresión
fr réimpression
en reprint

119

bi mailako edo gehiagoko deskribapen (4)

1. Item bat dagokion erregistroan sakon deskribatzeko erabiltzen den deskribapen-mota. 2. Unitate fisiko batek baino gehiagok osatutako lanen deskribapen bibliografikoa; lehenengo mailan, dokumentu osoaren informazio orokorra biltzen du, eta, bigarren mailan, unitate horietako bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa.

- es** descripción en dos o más niveles
fr description à deux niveaux ou plus
en multilevel description

120

bigarren mailako erregistro (4)

Sarrera nagusiaz bestelako sarrera edo idazpurua erabiliz egindako erregistroa.

- es** asiento secundario
fr notice secondaire
en added entry

bik.

Ik. bikoiztu

121

bikoiztu (4)

Sin. bik. (4)

Argitalpen baten ale errepikatua.

- es** duplicado; dupl.
fr dupliqué; double
en added copy; duplicate

122

bilaketa-tresna (4)

Beste dokumentu batzuetan dagoen informazioa bilatzeko bidea ematen duen baliabidea.

- es** herramienta de búsqueda
fr instrument de recherche
en finding aid

123

bilduma aizun (4)

Berez argitaratutako lan batzuk liburuki batean edo gehiagotan (edo karpetetan eta abarretan) taldekatzearen ondorioz sortzen den material-multzoa.

- es** colección facticia
- fr** recueil factice
- en** miscellaneous collection

124

bilduma berezi (4)

Liburutegi bateko bilduma orokorretik berezita dauden materialen multzoa; liburu bereziek, eskuizkribuek edo aparteko balioa duten itemek osatzen dute.

- es** colección especial
- fr** collection spéciale; fonds spécial
- en** special collection

125

bildumaren ebaluazio (4)

Liburutegi baten bildumaren kalitatearen ebaluazio sistematikoa; liburutegiaren helburuak zein neurritan betetzen dituen eta erabiltzaileen beharrianak zein heinetan asetzen dituen jakiteko egiten da.

- es** evaluación de la colección
- fr** évaluation de la collection
- en** collection evaluation; collection assessment

biltegi

Ik. gordailu

biltz.

Ik. biltzaile

126

biltzaile (4)

Sin. biltz. (4)
Beste argitalpen edo dokumentu askoren zatiak, laburpenak edo materialak lan bakarrean edo bilduma batean biltzen dituen pertsona.

- es** compilador; comp.; recopilador; rec.
- fr** compilateur
- en** compiler

127

bineta (4)

Lan baten kapituluaren hasieran edo amaieran apaingarri gisa jartzen den tamaina txikiko irudia.

- es** viñeta
- fr** vignette
- en** vignette

128

bizkar (4)

Liburu baten tolestura josita edo itsatsita dagoen alderdia estaltzen duen azal-zatia.

- es** lomo
- fr** dos
- en** spine

CIP

Ik. argitalpeneko katalogazio

copyright

Ik. egile-eskubideak

datu-banku

Ik. datu-base

129

datu-base (4)

Sin. datu-banku (4)

Euskarri digitalean gordetako gai edo esparru jakin baten inguruko informazio-bilduma; uniformeaz izaten da formatuaren aldetik, bilaketak errazteko eta azkartzeko egituratuta egoten da, eta berariaz sortutako softwarearen bidez erabiltzen da.

es base de datos; banco de datos**fr** base de données; banque de données**en** data base; database

130

desiderata (4)

Liburutegi edo artxibo batek eskuratu nahi dituen dokumentuen zerrenda.

es desiderata**fr** desiderata**en** desiderata

131

deskribapen bibliografiko (4)

Dokumentu bat erregistratzeko edo identifikatzeko erabiltzen diren datu bibliografikoak, arau jakin batzuen arabera jasotakoak.

es descripción bibliográfica**fr** description bibliographique**en** bibliographic description

132

deskribapen bibliografikoaren eremu (4)

Deskribapen bibliografikoaren atal bakoitza, elementu bat edo elkarren artean erlazionaturako zenbait elementu barnean hartzen dituena.

es área de la descripción bibliográfica**fr** zone de la description bibliographique**en** area of the bibliographic description

133

deskribapen fisiko (4)

Erregistro bibliografikoaren atala, argitalpenaren orrialdekatzea, liburuki-kopurua, ilustrazioak, neurriak eta material osagarria deskribatzen dituena.

es descripción física; colación**fr** description physique; collation**en** collation

134

deskriptore (4)

Indexazioan lan baten gaia izendatzeko erabiltzen den hitza edo ikurra.

es descriptor**fr** descripteur**en** descriptor

135

digitalizazio (4)**es** digitalización**fr** numérisation**en** digitisation; digitization

136

dohaintza (4)

Pertsona batek bere borondatez liburutegi bati ematen dion lana edo lanen multzoa.

es donación; donativo**fr** don**en** gift; donation

137

dokumentalista (4)**es** documentalista; mediador de información**fr** documentaliste; documentaliste spécialisé**en** documentalist; information specialist

138

dokumentazio (4)

1. Informazio erregistratua sistematikoki bildu, antolatu, mantendu, bilatu, erabili eta transmititzean datzan prozesua. 2. Gai zehatz baten inguruko dokumentuen bilduma; bereziki, argudio edo gertaera bat baieztatzeke balio duenean.

es documentación**fr** documentation**en** documentation

139

dokumentu-analisi (4)

Sin. dokumentu-azterketa (4)

Dokumentu baten gai-educia aztertzean eta modu labur eta zehatzean formalki adieraztean datzan prozesua.

es análisis documental**fr** analyse documentaire**en** document analysis; subject analysis**dokumentu-azterketa**

Ik. dokumentu-analisi

140

dokumentu-euskarri (4)**es** soporte documental**fr** support d'information**en** information medium; information carrier; information format

141

dokumentu-funts (4)

Sin. funts (4)

Liburutegi batenak diren dokumentuen multzoa.

es fondo; fondo documental; colección**fr** fonds; fonds documentaire; fonds de bibliothèque**en** holdings

142

dokumentu-motaren izendapen orokor (4)

Argitalpen bati dagokion material-mota orokorra (adibidez, bideo-grabazioa).

es designación general de la clase de documento**fr** indication générale du genre de document**en** general material designation

143

dokumentuen erreprodukzio (4)**es** reproducción; reproducción de documentos**fr** reproduction de documents**en** documentary reproduction; document copying**ed.**

Ik. edizio

ed. apail.

Ik. edizioaren apailatzaile

ed. faks.

Ik. edizio faksimile

144

edizio (4)

Sin. ed. (4); argitaraldi (4); argit. (4)

Eredu edo molde bera erabiliz sortutako dokumentu baten kopia guztiak.

es edición; ed.**fr** édition**en** edition

145

edizio faksimile (4)

Sin. ed. faks. (4)

Eskuizkribu edo liburu inprimatu baten kopia berdin-berdina, edozein prozeduraren bidez sortua.

es edición en facsímile; ed. facs.**fr** édition en fac-similé**en** facsimile edition; facsimile; facsimile reproduction

146

edizio printze (4)

Behin baino gehiagotan argitaratu den lan baten lehen argitalpeneko ale guztien multzoa; bereziki, klasiko bati edo garai bateko lan bati dagokiona.

es edición príncipe; edición original

fr édition princeps; édition originale

en first edition; original edition

147

edizioaren aipu (4)

Argitalpen bat edizio jakin batekoa dela adierazten duen hitz, esaldi edo karaktere-multzoa.

es mención de edición

fr mention d'édition

en edition statement

148

edizioaren apailatzaile (4)

Sin. ed. apail. (4)

Besteren testu bat argitaratu aurretik hura prestatzen duen pertsona. Haren lana materiala batzea izan daiteke, baita edukia berrikustea edo sarrera, oharrak, aurkibidea eta abar idaztea ere.

es editor literario; ed. lit.

fr éditeur littéraire

en editor; literary editor

149

edukien taula (4)

es tabla de materias

fr sommaire; table des matières

en table of contents

eg.

Ik. egile

150

egile (4)

Sin. eg. (4)

es autor; aut.

fr auteur

en author

151

egile korporatibo (4)

Sin. korporazio (4)

Lan baten edukiaren edo argitalpenaren erantzulea den pertsona juridikoa.

es autor corporativo

fr collectivité-auteur

en corporate author; corporate authorship

152

egile-eskubideak (4)

Sin. copyright (4)

Legeak egileei aitortzen dizkien eskubide moralak eta ondare-eskubideak.

es copyright; derechos de autor

fr copyright; droits d'auteur

en copyright

153

egile-sarrera (4)

Katalogo batean, lan baten lehen autore gisa aipatzen denari dagokion sarrera; autore edo egile hori pertsona bat edo erakunde bat izan daiteke.

es encabezamiento de autor; entrada de autor

fr accès par la vedette-auteur

en author entry

154

egilekide (4)

Sin. egkide. (4)

Lan baten eduki intelektual edo artistikoaren erantzukizuna beste egile batekin edo batzuekin batera duen pertsona.

es coautor; coaut.

fr coauteur

en joint author; coauthor

egkide.

Ik. egilekide

155

elementu (4)

Dokumentu bati buruzko datu homogeneoak deskribatzen dituzten hitzak, esaldiak edo karaktere-multzoak, deskribapen bibliografikoaren eremuak osatzen dituztenak.

es elemento; elemento de área

fr élément

en element

156

emanaldi (4)

Zatika eta denboran zehar banatuta argitaratutako lan baten atal bakoitza, lanaren zati iraunkorra dena.

es entrega

fr livraison

en part

ep.

Ik. epilogo

157

epigrafe (4)

Lan baten kapitulu edo atal bakoitzaren hasieran jartzen den izenburua edo laburpena.

es epígrafe

fr épigraphe

en epigraph

158

epilogo (4)

Sin. ep. (4)

Lan baten bukaerako zatia, lanean adierazitakoa laburbiltzen duena edo ondorioak ateratzen dituena.

es epílogo; ep.

fr épilogue

en epilogue

159

erantzukizunaren aipu (4)

Dokumentu baten eduki intelektual edo artistikoarekin zerikusia duen egile korporatibo edo norbanakoari buruzko informazioa.

es mención de responsabilidad

fr mention de responsabilité

en statement of responsibility

160

erreferentzia (4)

es referencia

fr référence

en reference

161

erreferentzia-erregistro (4)

Onartuak ez diren hainbat formatatik sarrera nagusi izateko aukeratutako formara bidaltzen duen erregistroa.

es registro de referencia

fr registre de référence

en reference register

162

erreferentzia-sail (4)

Liburutegi bateko erabiltzaileei eskatzen duten informazio bibliografikoa ematea helburu duen zerbitzu publikoen jarduera edo atala.

es sección de referencia

fr département de référence; département des renseignements bibliographiques

en reference department

163

erregistro (4)

Liburutegi bateko bilduma batean dagoen item bat katalogoan adierazten duen sarrera.

es asiento

fr fiche; notice

en entry

164

erregistro analitiko (4)

Argitalpen baten zati bat deskribatzen duen erregistroa; bereziki, dagoeneko erregistroa baduten bilduma eta argitalpen seriatuei dagokiena.

es asiento analítico**fr** fiche analytique; notice analytique**en** analytical entry

165

erregistro bibliografiko (4)

Dokumentu bat identifikatzeko erabiltzen diren datu bibliografikoak eta dokumentuaren kokapena barnean hartzen dituen katalogo edo datu-base bibliografiko bateko erregistroa.

Erregistro bibliografikoak paper zein kartoi mehezko fitxak izaten ziren lehen, baina gaur egun digitalak izaten dira gehienetan (MARC formatua erabili ohi da).

es registro bibliográfico; asiento bibliográfico**fr** fiche bibliographique; notice bibliographique**en** bibliographic entry

166

Erregistro**Bibliografikoentzako****Zehaztapen Funtzionalak (4)**

Sin. FRBR (4)

es Requerimientos Funcionales para Registros Bibliográficos; FRBR**fr** Spécifications fonctionnelles des notices bibliographiques; FRBR**en** Functional Requirements for Bibliographic Records; FRBR

167

erregistro nagusi (4)

Sarrera nagusiaren azpian lan bat identifikatzeko behar diren datu guztiak adierazten dituen erregistroa; bigarren mailako erregistroak osatzeko oinarri gisa erabiltzen da.

es asiento principal**fr** fiche principale; notice principale**en** main entry

168

erregistro osatugabe (4)

Argitaratzen ari den lan baten erregistro bibliografikoa jasotzen duen erregistroa. Atal berriak argitaratu ahala, haien datuak gehitzea ahalbidetzen du.

es asiento abierto**fr** notice de suite à compléter**en** open entry

169

erregistro-liburu (4)

